

UR SENDAGARRIAK ETA AIRE LIZUNAK




Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Zestoa, 1760 urte inguruan. Donemiliagako markesaren txakurak ur beroko putzuak topatu omen zituen. Hazteriak jota zegoen eta putzu horietan sartuta sendatu omen zen txakurra. 1804an zabaldu zen bainuetxea eta, horrenbestez, Euskal Herriko lehen instalazio turistikoa izan zen. Turista gehiago etortzen hasi ziren 1893tik aurrera, *Gran Hotel*-a eraikitzen hasi eta gero. Eta 1920ko hamarkada zorionsuan kanpotarren eragina nabarmentzen hasia zen zestoarren mentalitate eta ohituretan, besteak beste dantzan, Fernando Arzallusek *Danbolin* Zestoako herri aldizkarian berriki jaso duenez.

Arzallusek 1928ko agiri bat jaso zuen duela hogeitatu urteko festetako egitarauan. Dokumentuak islatzen duenez, urte hartako maiatzeko jaien ondoren, alkateak dantza lotuak debekatu zituen eta horrek herritarrak sumindu omen zituen. Zestoarren erantzuna eztabaidatu zuten udal agintariek, eta eztabaida hura paperan jaso.

Felix Zunzunegi heritarrak esan zuen “ez dela bera dantza lotuaren aldekoa, eta are gutxiago hemengo plazan dantzatzeko den dantza zorabiagarri horren aldekoa; berak eskatzen duela ondoko herrietan, Azpeitian eta Azkoitian, egiten dena egitea (...); bera musikaren aldekoa dela baina ez dantza erotikorekin aldekoa eta, beraz, desegokia iruditzen zaiola”. Itxuraz, Azpei-



Ezkerrean Zestoako bainuetxeko sarrera nagusia. Eskuinean goian, erromeria bainuetxe parean, 1920. urtean. Azpian, bainuetxeko galeria 1928ko abuztuan, udalak dantza arautu eta hilabete gutxira.




ZESTOAKO UDALA

tian eta Azkoitian arazoa konponduta zeudaten, baina inguruko herrietan kanpotik etorritako dantza *erotiko* haiek ez zeuden Zestoan bezain errotuta, nonbait.

Ramon Izeta alkateak arrazoia eman zion Zunzunegiri, baina bazekien “musikariak dantza sueltoak bakarrik jotzearen kontra zeudela, eta horregatik bidezkotzat jo zuela *baileable* denak bertan behera lagatzea, ea hartara herritarrak otzantzen ziren; baina protestak halako mailara iritsi dira, eta ez da posible eskatzen dutena ez ematea”. Horregatik, er-

dibideko proposamena egin zuen: pieza suelto bat jotzea eta bestea lotua.

Antonio Egigurenek eskatu zuen erabakia, alde batekoa zein bestekoa, aho batez hartzea, liskar handiagoak saiheste aldera, eta azkenean alkatearen proposamena onartu zuten: “Bandak jo dezala pieza bat sueltoa eta beste bat lotua, baina angelusaren ordurako, hau da iluntzerako, dena bukatzeko baldintzarekin”. Baina, “ez dezata jo eskandalosotzat hartzen diren dantza bat bera ere, esate baterako fox-trotak, charlestonak, tangoak eta abar”. ■



Pepi II, intsektuak uxatzen zituen faraoia

Pepi II.a edo Neferkara Pepi seigarren dinastiako azken faraoi nabarmena izan zen. Agintaldi luzea izan zen harena; Antzinaroko hainbat iturriren arabera, haurra zela igo zen tronura eta 90 urtetik gora egon zen agintean, K.a. 2278. urtetik 2184ra. Urte horiek guztiak ez zituen baliatu faraoiaren botere zentrala indartzeko. Alderantziz, eskualdetako

monarkek gero eta eragin handiagoa izan zuten. Baina horrek ez du esan nahi Pepik bere botere ia ahalguztiduna erabili ez zuenik. Besteak beste, intsektuak uxatzeko metodo eragingarria lortu zuen; eragingarria, faraoiarentzat. Esklaboei gorputza eztiz igurtzarazi eta, hala, intsektu guztiak haiengana joaten ziren, faraoia bakean utzita. ■